



José Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi".

LUIS OTAEGI

Txillardegi: Gizona traszendentzia eta heriotzaren arteko kontradikzioan bizi da

PAKO ARISTI

—57an "Leturiaren egunkari ezgunkari ezkutua" argitaratu huen. Zein egoeratan idatzi huen eta zer erreflejatu nahiean?

—Garai hartan literatura asko irakurtzen nian. Urte haietan soldaduskara joatea portunatu zitzaidan eta gogoratzen nauk joan aurretik Koldo Mitxelenarekin hizketan egon nintzela, liburu batu itzuli behar nuela eta abar, eta berak esan zidakean ezetz, serbait berria sortu behar nuela esan zidan. Nik ez nian inoiz ezer sortzea planteatu, eta esan nioan Mitxelenari, "Baina nik zer kontatu behar det". Soldaduskara joan eta han, hiru astetatik bat baterian pasatzen nian, alferrez egin ninduan eta. Egun guztia lubre izaten nian, eta mendian geundenez, pake santuan. Cabo Prior-en geunde eta hantxa idatzi nian Leturia. Sei hilibetetan amaitu nian. Idatzi ahala emazteari bidaltzen nizkioan orriak eritziak jakiteko. Garai hartan esistenzialismoa oso modan zegoen eta nik asko irakurri nizkian Unamuno, Sartre piska bat, Hildegard. Liburuan gehien influitu zidatenak Unamuno eta Hildegard izan hituen.

Gaia kristau esistenzialismoa duk, oso modu simbolikoan kontatua. Miren pertsonaia duk baina sinbolo bat, Parisera joatea ere simbolikoa

Karrera amaitu eta Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" soldadu abiatu zen Ferrolera, alferrez gisa. Cabo Prior inguruko mendietan bere lehen nobela idatzi zuen, "Leturiaren egunkari ezkutua", euskal nobelagintza gai aldetik erabat berrituko zuena eta Saizarbitoriarekin batera euskal nobela berriaren sustraiak errotuko zituen. Gero linguistikaren bide sakonetan ibili zaigu 8 urtez eta orain berriz literaturgintzan hasketotan da gure literaturaren idazle klasiko hau. Esistenzialismoak markatu du bere nobelagintza baina hurrengo nobelan Euskal Herriko egoera soziala erreflejatu nahi du bere krudeltasun osoan. Ea tinta berriak ateratzen dizkion luma zaharrari.

duk, Paris nobela horretan aurrerapena eta jakituriaren mundua duk.

—Soldaduskak permititu zian nobela bat idaztea?

—Bai. Han bakar bakarrik nengoen, kezkarik gabe, karrera amaitu berria, politika derrigorrez utzita neukan. Garai hartan Ekin sortua zegoen eta ez nian joaterik izan Parisen Agirrek antolatatu zuen bilerara. Pakean nengoen garai hartan.

—Ezagutzen huen euskal literatura?

—Orduan ez zegoen euskal literaturarik. Oso urria huen, Jon Etxaide, Mirande, horrelako batzu. Basamortu bat huen euskal literatura.

Ni leporaino negoen basarrikeriekin, euskaldunak. Oso ondo zegoen baina hori ez zen Euskal Herri guztia, zati txiki bat baizik. Interesantea huen baserri mundua baina euskeraren etorkizuna kalean

zegoen eta zegok gaur ere, Aresti ere konturatu huen horrekin eta alderdi horretatik berdin pentsatzen genian, bera Bilbon jaioa, ni Donostian, eta euskara hiritartzea, eta ni ere konziente ninduan horrekin eta helburu hori oso garrantzitsua izan huen Leturia idazterakoan. Krutwing-ek esaten Orixeren "Euskaldunak" poemataz "es la apología del jehismo", eta hori zen gure artean zegoen giroa. Nobela europarra egin nahi nuen, kaletarra, jendearen problemekin, gure literaturan lehenengo aldiz agertzen da Paris.

—Leturia ez duk nobela adolezente bat?

—Gauza askotan bai, hori normala. Bestalde asko esan duk ere ez duela batere erreflejatzen Euskal Herriko giro politikoa. Ez da ahaztu behar frankismo betean geundela, ni politikan sartua nengoen, eta orduan sortu zen eta ni sortzaileetarikoa bat nintzen. Ezin zen egoera po-

litikoaz hitzegin. Zentzura pasatzeko aina agiten zen.

—60an "Peru Leartzako" argitaratzen duk. Leturiaren haria jarraitzen duk?

—Bai. Tipo bat enpresa batean lan alu bat egiten ari da, aspertuta, berak ez du ikusteko gizonaren azken prolema munduan dirua denik, inportantea duk bizitzeko bai, eta oso determinantea. Prolema hori kendu ezker prolema metafisikoa agertzen dira. Tipo honi holako batean loteria tokatzen zaio, aberats bihurtzen da eta orduan agertzen zaizkio izkutuko prolema metafisikoa. Leturiaren prolema bizi dik honek ere. Gizonaren tragedia agertu nahi nian. Oso Sartrianoa duk gaia. Lehenengo bi nobela hauen artean ez zegok salto haundirik, biak lehenengo pertsonan idatziak zeudek eta gaia ere berdintsua duk. Garai hartako nahiko nobela modernoak dituk.

—69an "Elsa Scheelen" argitaratzen duk eta joera filosofiko hori baturtu egiten duk ezta?

—Bai, jendeak ere esaten zaikean oso zaila zela sinbolismo hori eta nobela normal bat egiteko, eta Elsa Scheelen egin nian, emakume baten bizitzari buruz, Gainera Euskaltzaindikoa saria irabazi zian. Baina ez diat uste nere nobelarik onena denik. Azkena, "Haizeaz Bestaldetik" hobe duk. "Elsa Scheelen"-ek duena hizkera helduago bat duk, ez zailago baizik helduago. Nobela klasiko bat duk, pasadizoz egindako nobela bat, eta ez forma ez sinboliko aldetik ez duk batere zaila. Nobelarik arruntea duk. Belgican idatzi nian, eta bertako zenbait gauza erreflejatzen dizkiat, apezgoaren egoera adibidez. Pertsonaia, emakume bat, apaiz batekin liatzen da. Garaiaren lekuko duk nobela hau.

—Azken nobelara iristen gaituk, "Haizeaz Bestaldetik" deritzana eta heuk esan duanez, hire nobelagintzako onena...

—Nobela sakonena duk, sinbolistena. Mami gizonaren kasa munduan duk. Haserako nobelan joera hartzen dik, eta usten diat Leturia eta Haizeaz Bestaldetik nahiko antzekoak direla, baina sentido askotan "Haizeaz" oso berria duk. Prolema metafisikoa agertzen duk, gizonak infinitoa, treszendentzia bilatzen dik, Nobela horretan tipo bat hil

egiten duk baina berriz etortzen duk mundura, eta bizi izan duen esperientzia horrekin, traszendentziarik ez dagoela esaten dik, ez dago jau-goikorik, ez dago ezer, Lehenengo bi zatitan monasterio batetan egoten duk eta hor erlijioaren kritika bat egiten dik, mundua hau bakarrik da esanez, hil eta akabo, baina ez zioate kasurik egiten. Hurrengo zatian planteamentu ateista, fazista materialista batetara doa eta hor ere ez diote kasorik egiten. Orduan, bera konturatzen duk gizonaren prolema horrelako gauzetan sinestea dela. Bere bizi berriri bizitzen hasten da, baina beste perspektiba batekin. Berak badaki egia eta badakinnola bizi behar duen. Konturatzen de enomatu zenean oso gaizki egin zuela, emakume bat absolutu bihurtuz, baina halere behin eta berriz oroitzen zaion maitasuna hori da, eta azkenean itsasoari begira hiltzen da, bere mundua atuz, itxaropenik gabe. Planteamentua erabat esistenzialista duk, eta oso humanoa bestalde.

—Zegatik duk nobelarik onena?

—Nere ustez poesi gehiena honek dauka. Forma aldetik konplikatu duk. Sinbolikoa den ezker, ziklikoa duk, errepikatzen da, denboraren hausketa bat dago, irakurtzeko zaila gertatu badaiteke ere. Ez dakit zenbait izan duter irakurtzeko pazientzia.

—Nahiz eta jende askok ez duela irakurriko jakin, halere ez duk konplikazio hori sinpletzen?

—Ez. Kortazarrek esaten zian lehenengo berak idazten zuela ez pentsatuz jendearengana, baizik behar batetik, barne behar batek eragina, eta "Haizeaz Bestaldetik" izan da nik bota nahi nuen zerbait, eta metafisika aldetik uste diat nobela hau dela gizonaren egia, nahiz eta oso tristea izan, absoluto izan nahia, bizi beharra, kontradikzio hori erreflejatua nahi izan diat, eta nahiko lortu diat nere pentsakera identifikatzea nobela horren bidez. Eta honekin ez naiz Euskal Herriko egoeraz ahaztu. Hor planteatzen ditudan prolema egunero agertzen dira euskaldunenengan. Txapela errefuxiatuaren gorputza erre eta hautsak haizera botatzek zer ikusi handia du nobelako zenbait gairekin. Gainera, jendeak oraindik ez du tabu askorekin hautsi eta horregatik izan dira Txapelaren gorputza erretzearekin izan diren ziskoak. Kontua da esperantza ber-

tsionari oso barnean dagokion zerbait dela eta hori kolpera moztea oso tristea da. Nobelako pertsonaia ere azkenean hil egiten da, itsasora begira, "itsasoa da nere aberria". Profesta bezala gelditzen da karraxi hori. Gizartean gertatzen diren prolema indibidual batzuren erreflejoa duk nobela.

—Azken nobela honetatik oraindano isilune literario bat eduki duk. Zein duk honen zergatia?

—Linguistikan sartu naizelako. Hiru Liburu prestatzen egon nauk, Gramatika, Fonologia eta Azentuari buruz. Sei zortzi urte zaramakiat honekin, eta ez idazten bakarrik, klaseak ematen Donosti eta Deustun, Californian ere egon nauk linguistika ikasten, linguistikaz arduratzeak badu bere funtzio bat herri honetan, euskera aurrera bultzatzen badiagu, planteamentu zientifiko serio bat egitea inportantea duk. Linguistika munduan sartu ninduanean, rekonbersio bat behar izan nian, asko irakurri beharra, horregatik izan duk nere isilune hau. Bestalde, hemen dagoen tensio politikoak ere eragin handia dik nigan eta ez zidak idazteko patxara ematen. Askok esan diate ni kulturalista bat naizela, ni ez hauek horrela. Buru belarri sartua ibili nauk politikan, ez partidu gizon bezala, baizik politikan. Eta ni kulturalista bat izango banintz, trankil biziko nintzateke. Ni ez naiz ibili ETaren sorreran eta ibili naizen lekuetan kulturalista izateagatik. Etsaiak gezur guztiak erabiltzen dizkik, eta pena ematen didana duk etsaiak asmatutako gezurrak lagunek ere sinestea. Esker abertzalean dabilen jende askok esaten dit kulturalista ez izateagatik, eta azkenean etxeok ere hori atxakaten ziatek. Egia duk sei urte hauetan euskal linguistikaz okupatu naizela, baina hori neretzako ekintza politiko duk. Kartzelan ere egon nauk eta hori ez duk kulturalismoa.

—Hire linguistikagintza 1975 aldera hasten duk "Euskara batua zertan den" liburuarekin.

—Liburu hori garrantzitsua izan duk euskararen irakaskuntz arloan. "Euskal aditz batua" ere neuk prestatu nian gahenbat. Hurrengo "Euskal gramatika" duk, gero "Euskal Fonologia" eta laister "Euskal gramatika" aterako diat. UEU-rako ere egin diat zenbait lan. —Zer planteamendutatik egin duk

"Euskal Azentoa"ren ikerketa?

—Zer den euskal azentoa; zein berizgarri dituen, erabiltzeko reglak, alderdi horretatik enfokatu diat. Lan garrantzitsua duk oso, euskalzaleentzat eta ondorioak izango dituen fonoli sintagmatikoaren mailan. Azentorekin gauza kuriosoak gertatzen dituk. Alde batetik, kristoren astakeriak entzuten dituk batzuetan, azentu klase bat entzuten duk eta hor ez dik euskera ematen, farregariak. Horregatik normak eman behar dira, erakutsi egin behar da euskal azentoa nola den, baina bestalde gertatzen duk inork ez duela horrekin busti nahi, bazeudek jauntxo haundi batzutan kritikatzin baina beraiek ez diate inoiz ezer egiten. Beste gauza kurioso bat duk euskerak azentorik ez duela esaten dela, eta hori gezurra duk. Gertatzen dena duk leku batetik bestera asko aldatzen dela, baina halere konprobatu diat posible dela bide bar markatzea. Ez duk izango denen gustokoa, baina lehen ere, "H"-ari buruzko arauak ez hituen denen gustokoak izan eta aditza ere ez. Azentuari buruz proposatuko dizkiadan arauak ere gutxi gora behera Gipuzkoako era izango duk. Prolema nagusia hiru silabatako hitzekin izango diagu. Hitz hauek desberdin esaten dituk Gipuzku eta Bizkaian, baina generalki batasun dexente zegok. Nafarroa eta Zuberoarekin betikoa, guztiz kanpoan geldituko direla, aparte erabat. Euskara batuarekin jarraitu zen bidea ere horrela izan zen.

Bizkaitarrak adibidez asko keajaten dituk euskara batuarekin beraiengadik oso urrun gelditu delako. Azentua mailan proposatu dudana bidea gendituko duk nafararentzako eta zuberorentzako nahiko urruti, baina ez zegok beste biderik. Halere esten diat jendeari nahiko etxeokoa irudituko zaiola. Prolema handiena hiru silabatako hitzetan zeukiat eta hor beharbada bi moduak onartuko dizkiat, Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa.

—Non oinarritu haiz ikerketa hau egiteko?

—Batetik dauden dokumentu guztiak aztertu, bestetik mila zinta entzun, irratia entzun, eta ikusi diat gaur eguneko joera berdintsua dela Euskal Herrian. Lau silabako hitzetan oso berdina duk, eta biko eta silaba batekoetan ere bai. Esan beza-

la hirukoetan zegok prolema. Euskaldunak silabetan azentoa alternatzeok joera zeukak. Harrigarria duk noraino dagoen batua euskal azentoa oraindik.

—Zubererak eta nafararak zer prolema zeukiate?

—Hoiek erdaldunak dituk, interferentziaz beteak zeudek. Biak diate espainolaren eragin izugarria. Azken aurreko silaba azentuatzeok joera zeukiate biak. Esaten diate aintzina zeltikoaren azentua dela Zuberuko baina nik inpresioa zeukiat erdarearen eragin hutsa dela.

—Euskaltzaindiak proposatuko al dik beste araurik edo heurreak apoituko al dizkik?

—Euskaltzaindiak zer egingo duen ez zekiat. Euskaltzaindia erabat kildurik zegok eta ez dik nere ustez erabakirik hartuko oraingo. Halere horrek ez nau asko kezkatzen. Euskaltzaindia erabat beldurtuta gelditu da asunto hortan eta beste askotan eta ez dut uste benetan aurrera joko duenik. Baina hori berdín da. UZEI-ko lana ere Euskaltzaindiak edo behintzat Koldo Mitxelenak ez du ondo ikusten. Halere, ihaz batzar bat egin zen hitz modernoer buruz zer bide jarraitu behar zen zehazteko eta UZEI-ko bideak onartu dira. UZEI oso kritikagarria izan daiteke, baina UZEI lan asko egin ari da eta soluzio bat izan daiteke. Ezin da egon hor jendea kondenatzen, ananema eta horrelako akusazioekin. Euskara gaurko munduan sartu behar bada soluzioak eman behar dira. UZEI-ren hiztegia ere zenbait puntutan kritikagarria duk, jarraitzen duten modelo espainolarentzako gertuegi dagoelako, baina bide bat duk. Prolema azken finean ez duk linguistiko baizik sozio-linguistikoa. Oso bide polita proposatu eta jendeak ez badik jarraitzen, hori linguisten paraisoa izango huke baina efektibitatek gabekoa. Eta planteamentu sozio-linguistikoa hori

duk UZEI-k duen gauzarin onena: jendeak zer eskatuko duen, hori egin.

—Zergatik usten duk izango dela Euskaltzaindiaren inhbizio hori?

—Alde batetik euskara batua eta "H"-aren esperientziak sekulako istiluak ekarri ditulako. Uste diat beldurto egin direla. Bestetik, konturatzen dituk hemengo indar politiko nagusia PNV dela, eta konturatzen dira ez dela posible planteamentu bat egitea gero PVN-k onartuko ez duena. Koldo Mitxelena PNV-koa da, eta seguraski kristoren bronkak izan ditu. Orduan Mitxelena frenatuta dago eta Euskaltzaindia ere bai. Euskaltzaindia Euskal Gobernuarekin dago. Gainera Euskaltzaindia zaharrez beteta dago eta gaurko ez dauka jende berria, gaztea hartzeko joerarik. Eta bri da Euskaltzaindiak berritzeko behar duena. UZEI-ko jendea sartu beharko litzateke hor. Leioan euskaraz ematen dutenak, eta literatur mailan gaur egun puntan dabilzanak, Bernardo Atxaga, Irigoien, Andu, Sarrionandia, eta beste asko. Euskaltzaindiak beldurra dio horri, eta fraile zaharrez beteta gelditzen da gaur egun. Beste akademietan izena duten idazleak hartzen dituzte. Hemen, Euskaltzaindiak ez ditu hartzen ez idazle berriak eta ez euskalzale bultzatzaileak. Ni neu Euskaltzaindiako urgazlea nauk. Horres esan nahi dik boza badudala baina botorik ez. Orain dela 27 urtetik nauk eta hemen negok berdín.

—Berriz Literaturara itzultzeko asmoak omen dituk...

—Bai. Azentorekin lan hau amaitu nahi diat ze hori egiteko daukadan bitartean ezin diat beste ezer egin. Baina amaitu bezain laster, eta uste diat oso laster izango dela, nobela bat egin behar diat, orain sinbolismorik gabe, Euskal Herriko egoera azalduaz, egoera soziala noski, baina zuzenean, bere krudeltasunean. Oso desberdina izango duk nobela hori.

EDICTO

D. LUIS BLANQUEZ PEREZ, MAGISTRADO JUEZ DE PRIMERA INSTANCIA NUMERO DOS DE SAN SEBASTIAN Y SU PARTIDO.

Por el presente HAGO SABER: Que en este Juzgado de mi cargo y bajo el número 1.022-1983 se tramitan autos de procedimiento judicial sumario Art. 131 Ley Hipotecaria, a instancia del BANCO DE VIZCAYA S. A. representado por la Procuradora doña Inmaculada Bengoechea Ríos, contra don José María Garmendia Goiburu, mayor de edad, domiciliado en Irún, sobre reclamación de cantidad, en cuyos autos, por providencia del día de la fecha, se acordó sacar a la venta en pública subasta, por primera vez y término de veinte días hábiles, los bienes inmuebles especialmente hipotecados, que son los siguientes:

Villa Eguzki Alde, construida en una parcela de terreno sita en el B.º Ventas de la ciudad de Irún, con una cabida de seiscientos dieciséis metros, veinticinco decímetros cuadrados. La superficie de la casa es de 92,12 m². Es una sola planta y de forma rectangular, cuyos lados Norte y Sur, miden 9,40 m², y los Este y Oeste 9,80 m².

Linda por todos sus lados, con resto del terreno en que se halla enclavada, que como antes se ha dicho tiene una superficie de 616,25 m², que confina por el Norte, con resto de la finca de que se segregó; por el Sur, con terreno de D. Feliciano Sánchez y por el Este y Oeste con dicho resto de la finca matriz y señalándose con parte del mismo, destinado a camino para el servicio de la finca de que se segregó de la que ahora se describe, y de las otras parcelas segregadas anteriormente.

Inscrita al tomo 676, libro 95 de Irún, folio 249, finca 255, inscripción 2.ª.

Tasada a efectos de subasta en la escritura de constitución de hipoteca, en la cantidad de CUATRO MILLONES DE PESETAS.

Habiéndose señalado para el remate que tendrá lugar en la Sala-Audiencia de este Juzgado, sito en la Calle San Martín número 41, piso 2.º, el día CINCO DE JUNIO próximo, a las diez horas, se advierte:

1.º Que para tomar parte en la subasta deberán los licitadores consignar previamente en la mesa del Juzgado, o establecimiento destinado al efecto, una cantidad igual por lo menos al 10% efectivo del valor de los bienes por el que salen a subasta, sin cuyo requisito no serán admitidos.

2.º Que servirá de tipo para la subasta el precio pactado en la escritura de constitución de hipoteca, no admitiéndose posturas que sean inferiores a dicho tipo.

3.º Que los autos, y la certificación del Registro a que se refiere la Regla 4.ª, estarán de manifiesto en la Secretaría del Juzgado, que se entenderá que todo licitador, acepta como bastante la titulación y que las cargas o gravámenes anteriores y los preferentes —si los hubiere— al crédito del actor, continuarán subsistentes y sin cancelar entendiéndose que el rematante los acepta y queda subrogado en la responsabilidad de los mismos, sin destinarse a su extinción el precio del remate.

4.º Que el remate puede hacerse a calidad de ceder a un tercero.

Dado en San Sebastián a veintiocho de febrero de mil novecientos ochenta y cuatro.—E/. (Ilegible).—El Secretario. (Ilegible.)



LUIS OTAZAIN

Euskeraren etorkisuna kalean zegoen eta zegok gaur ere.